# Atabal

JANVIER-AVRIL | URTARRILA-APIRILA
2015




Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# edito

«Il y a dans la vie de chacun un moment où il faut choisir de fuir ou de résister» C. Bukowski.

10 bougies déjà! En 2015, l'Atabal passera le cap des 10 ans! Une décennie dans le champ des musiques actuelles, une décennie de concerts, de mélange entre têtes d'affiches, bon nombres de découvertes et tous les groupes locaux. Une décennie à enseigner aussi, transmettre et accompagner projets et initiatives locales. Et même deux à positionner cette idée des musiques actuelles à Biarritz et à l'échelle de l'agglomération comme nécessité au développement de la politique culturelle locale et comme participation à la structuration de ce territoire. On a bien sûr une pensée amicale pour toutes les personnes qui ont œuvré, travaillé ou accompagné ce projet depuis le départ.

10 ans de projets, de tentatives, de balbutiement aussi parfois il faut bien le reconnaître, pour trouver une voie qui corresponde aux objectifs initiaux, aux valeurs d'intérêt général dans lesquelles on inscrit nos missions. 10 ans pour essayer d'être un des catalyseurs des différentes initiatives locales. 10 ans de propositions, d'invitation vers l'inconnu et la découverte, locale nationale ou intersidérale. Voilà la belle vie de l'Atabal depuis 10 ans. Riche d'événements et de concerts qui succèdent aux activités pédagogiques, aux rencontres scolaires, aux résidences... Nous essayons toujours d'être le relais fidèle de vos aspirations, des passeurs qui rendent possible vos envies de fêtes, d'apprentissages ou de formations. Ce lieu est bien sûr à vous, c'est votre histoire et nos vies qui s'y déroulent chaque semaine au gré des événements et des expressions qui s'y développent.

On œuvre chaque jour avec la même passion et le même engouement. Loin de tout renoncement ou de fuite. Face à l'évolution de ce secteur on affiche aussi nos convictions et ce socle de valeurs qui nous semblent essentielles. On maintient la posture, l'étincelle et la droiture dans les yeux, avec toujours cette envie de chercher, découvrir, s'émerveiller, faire circuler ou éclore... On résiste au climat anxiogène ambiant en se nourrissant de tout ce qu'il y a d'espoir, de positif et de beau dans ce vivre, construire et créer ensemble au quotidien. En 2015 place donc à encore plus de collaborations et de découvertes en commençant par l'édition 2 de TRIBUS, festival des collectifs locaux, la venue des artistes FAIR: LE TOUR, ISAAC DELUSION et BADEN BADEN ou la Release Party de BOTIBOL en Mars. On vous proposera aussi de retrouver tout au long de l'année quelques artistes qui auront marqué l'histoire de la salle comme Lofofora, Miossec, Tiken Jah Fakoly, Anestesia et d'autres surprises à venir.

A l'aube de cette 10ème année, vous êtes de plus en plus nombreux à nous suivre. Merci vraiment pour ce soutien et soyez sûr qu'avec vous tous, la suite devrait être encore plus belle.


*Responsable de la publication* **François Maton** *Argitalpenaren Arduraduna*
*Rédaction - Communication* **Corinne Thion** *Idazketa - Komunikazioa*
*Traduction* **Txomin Urriza Luro** *Itzulpena*
*Régie Publicitaire* **Brice Morin 06 04 59 85 07** *Publizitatea*
*Impression* **www.ladinamo.fr** *Inprimatzea*
*Visuel Couverture* **Alesko** *Azaleko Irudia*
*Crédits Photos* **T. Loustauneau - A. Cazenave** *Argazkiak*



**Atabal**
37, Allée du Moura - 64200 Biarritz - 37 Moura karrika
05 59 41 73 20 – www.atabal-biarritz.fr


«Ihes egitea edo buru egitea aukeratu behar den momentu bat dago ororen bizitzan» C. Bukowski.

10 kandela jadanik! 2015ean, Atabalek 10 urteen langa gaindituko du! Gaurko musiken arloan hamarkada oso bat. Afitxa buruak, aurkikuntza polit anitz eta tokiko talde guztiak nahasirik, kontzertu hamarkada oso bat. Tokiko ekimen eta proiektuak laguntzen, transmititzen eta irakasten, hamarkada oso bat. Bi hamarkada, gainera, Biarritzen eta hirigunearen baitan gaurko musiken ideia hori kokatzen, tokiko kultura politika garatzeko eta lurralde hori egituratzeko gaurko musikak beharrezkoak direla errepikatzen. Hastapenetik proiektu horren laguntzen, lantzen, gauzatzen aritu diren adiskide guztietaz oroitzen gara, noski.

10 urtez proiektuak garatu ditugu, entseguak egin ditugu, eta batzuetan haztamuka ibili gara ere -onartu behar dugunez-. Guztia, hasierako helburuekin eta interes orokorreko balioekin bat datorren bide bat aurkitzeko asmoz, gure zeregina horren baitan kokatzen baitugu. Tokiko ekimen ezberdinen piztaile bat izaten saiatu gara 10 urtez. 10 urtez proposamenak luzatu ditugu, ezezagunera eta aurkikuntzara hurbiltzeko gonbidapenak egin ditugu, tokiko, estatu mailako edo izarrarteko taldeak ekarraraziz. Horra, azken 10 urteetan, Atabalen bizi ederra. Gertakari eta kontzertuz aberatsa, jarduera pedagogiko, eskolako jardunaldi, egonaldien, eta abarren artean. Zuen nahikundeari fidelki jarraitzen saiatzen gara. Besta egiteko, ikasteko edo formatzeko duzuen gogoa posible egiten dugun bitartekariak izaten saiatzen gara. Gune hori zuena da noski. Zuen istorioak eta gure biziak iragaten dira bertan, aste oro, gertakari eta adierazpenen nahierara.

Egunero aritzen gara pasio eta gogo berarekin, uko egite edo ihes egite guztietatik urrun. Gaurko musiken arloaren bilakaeraren aurrean, gure segurtamenak eta funtsezkoak iruditzen zaizkigun oinarrizko balioak adierazten ditugu. Gure jarrera mantentzen dugu, begietan pindarra eta zuzentasuna atxikitzen ditugu, betiere, bilatzeko, aurkitzeko, xoratzeko, pasarazteko edo zabaltzeko gogoarekin... Egunerokotasunean elkarrekin sortzeak, eraikitzeak eta bizitzeak duen edertasunetik, positibotik eta itxaropenetik elikatzen gara, larritasuna eta antsietatea sustatzen duen giroari buru egiteko. 2015 urtean, beraz, elkarlan eta aurkikuntza gehiago eskainiko dizkizuegu. Hasteko, TRIBUS festibalaren bigarren edizioa izango dugu, tokiko kolektiboen festibala. FAIR egituraren baitan dauden artista ospetsuak ere etorriko dira : LE TOUR, ISAAC DELUSION eta BADEN BADEN. BOTIBOLen estreinaldi besta izango da martxoan. Urte guztian zehar, gainera, aretoko historia idatzi duten artista zenbait ikusten ahalko dituzue : Lofofora, Miossec, Tiken Jah Fakoly, Anestesia eta beste sorpresa batzuk.

10. urte horren hastapenean, gero eta jarraitzaile gehiago zarete. Milesker sostengu horrentzat, zinez. Segur izan, zuekin, segidak orain artekoa baino ederragoa izan beharko lukeela.

4 Egun PASS 4 Jours 20€

# 4 JOURS DE FESTIVAL // 4 EGUNEKO FESTIBALA

# TRIBUS #2

**Vendredi 23 & Samedi 24 Janvier + Vendredi 30 & Samedi 31 Janvier**
**Urtarrilak 23 ostirala eta 24 larunbata + Urtarrilak 30 ostirala eta 31 larunbata**

FEST

**Tribus: 2ème édition du festival des collectifs locaux!**

Après le succès et la richesse de la 1ère édition, TRIBUS est désormais un de nos rendez-vous incontournables du début d'année.

Cette 2ème édition est toujours placée sous le signe de la découverte et de la rencontre des collectifs sur les deux derniers week-ends de Janvier.

4 soirées autour de l'électro hip hop, du dub, du rock, de la noise et de la nouvelle scène en euskara!

C'est le retour de tous les apaches!

**Tribus: tokiko kolektiboen festibalaren bigarren edizioa!**

Lehen edizioaren arrakasta eta aberastasunaren ondotik, orain, TRIBUS urte hastapeneko gure hitzordu bazterrezina bilakatu da.

Urtarrileko azken bi asteburuetan, bigarren edizio horrek, betiere, aurkikuntza eta kolektiboen ezagutza egitea ditu ezaugarri nagusitzat.

Elektro, hip-hop, dub, rock, noise eta euskarazko eszena berriaren inguruko 4 gaualdi!

Apatxe guztien itzulera da!




*TRIBUS #2 ©Michaël BARRET*

bakarra 8€ unique /// gratuit (adh – kide) urririk // 4 Egun PASS 4 Jours 20€

## VENDREDI 23 JANVIER 21:00 URTARRILAK 23 OSTIRALA

# DSF PARTY
# + LA FINE EQUIPE

**TRIBUS #2 : DIRTY SOUTH FAMILY**

ELEKTRO
HIP HOP



**Pour cette deuxième édition de TRIBUS, la DSF invite le collectif LA FINE EQUIPE.**

Depuis près de dix ans, le travail livré par LA FINE ÉQUIPE n'en finit pas de surprendre. Parce qu'il est dense, d'abord, avec deux compilations instrumentales incontournables, «La Boulangerie 1» et «2» et parce qu'il est chaque fois différent, grâce à l'activité de ces ingénieurs du son qui dépasse largement le cadre des samplers, pour offrir sur un plateau des productions inédites et sacrément malignes.
A nouveau réunis sous la bannière de LA FINE EQUIPE après des échappées solo, les quatre compères écrivent le chapitre final de leur trilogie avec l'album «La Boulangerie 3».
28 titres pour lesquels les équipiers ont rameuté un arsenal d'invités 20SYL, FAKEAR, SUPERPOZE, EVERYDAYZ, SOULEANCE pour nous délivrer un véritable petit bijou.
C'est donc à l'Atabal le 23 janvier prochain, que vous aurez l'occasion de découvrir leur nouveau live ainsi que les lives des DASH KLUSTERZ, LAZY SOUL, DJ SHAPES lors de la DSF PARTY!




**TRIBUren bigarren edizio honetan, LA FINE EQUIPE kolektiboa gonbidatzen du DSF-ek.**

Gutxi gorabehera hamar urte dira LA FINE EQUIPE-ek eskaintzen duen lanak harriturik uzten gaituela. Trinkoa delako, lehenik. La Boulangerie 1 eta 2 konpilazio instrumental bazterrezinak lekuko. Ondotik, aldi oro desberdina delako. Soinua lantzen duten ingeniari hauek beti lanean dabiltza. Sampler-aren koadroa gainditzen dute aise, eta ekoizpen berri eta arras maltzurrak eskaintzen dituzte.
Bakarkako ihesaldien ondotik LA FINE EQUIPE-en baitan berriz ere bildurik, «La Boulangerie 3» diskoarekin beren trilogiaren azken kapitulua argitaratzen dute lau lagunek.
28 kantuz osatua da diskoa, eta maila handiko gonbidatu parrasta batu zaie taldekideei: 20SYL, FAKEAR, SUPERPOZE, EVERYDAYZ, SOULEANCE. Benetako harribitxia eskaintzen digute.
Urtarrilaren 23an, Atabalen beraz, DSF PARTY-aren baitan, beren zuzeneko berria ikusteko aukera eta DASH KLUSTERZ, LAZY SOUL, DJ SHAPES-en zuzenekoetaz gozatzeko parada izanen duzue!



DSF @VLZ

ADHÉRENT GRATUIT
KIDEENTZAT
URRIRIK

bakarra 8€ unique /// gratuit (adh – kide) urririk // 4 Egun PASS 4 Jours 20€

# SAMEDI 24 JANVIER 21:00 URTARRILAK 24 LARUNBATA

# PAXKAL IRIGOYEN & LARRAZKEN ORKESTRA + BORROKAN + 465

**TRIBUS #2 : BRAH BRAH KOLEKTIBOA**

ROCK
NOISE

**PAXKAL IRIGOYEN & LARRAZKEN ORKESTRA** est sûrement un des projets les plus beaux qu'on aura entendu en 2014 au sein de la scène basque. Explorant de multiples styles au sein de Zezenaren Taldea ou Bilau, Paxkal livre là un projet plus personnel, aux frontières du post rock et du folk orchestral. Accompagné sur scène par le «Larrazken orkestra», on assiste à une performance tendue et émouvante où se mêlent violoncelle, violon, guitare électrique, accordéon et voix. Répondant à l'invitation du collectif Brah Brah et de l'Atabal il présentera ce projet pour la dernière fois après une résidence de deux jours sur place.

**BORROKAN**
C'est au milieu des années 90 que le quintet actuel Borrokan voit le jour. Le groupe, issu de la prolifique scène noise de Bera sort en 2002 son premier album éponyme. Puis en septembre 2007 le second album «Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke. Oraintxe!»
Ils reviennent aujourd'hui avec le projet Zuak, et répondent à l'invitation du collectif Brah Brah pour présenter ce nouveau disque sur la scène de l'ATABAL.

**465** un des meilleurs groupes d'Iparralde, mais aussi un des plus méconnus. Le nom du groupe exprime le nombre de prisonnier politique basque actuellement incarcérés. Il change donc constamment. Il en est de même de leur musique, qui évolue du post-rock calme et ambiant aux envolées noise les plus survoltées.




**PAXKAL IRIGOYEN & LARRAZKEN ORKESTRA** dudarik gabe 2014 urtean euskal eszenan entzun dugun proiekturik ederrenetarikoa da. Zezenaren Taldea edo Bilau taldearekin musika estilo ugari jotzen ditu. Oraingoan, Paxkalek proiektu pertsonalagoa eskaintzen du, post rock eta folk orkestralaren mugetan. «Larrazken Orkestra»-k oholtza gainean lagundurik, biolontxelo, biolin, gitarra elektriko, esku soinu eta ahotsak elkarturik, zuzeneko tirabiratsu eta hunkigarria ematen du.
Brah Brah Kolektiboaren eta Atabalen deiari erantzunez, aretoan bi egunetako egonaldia egin eta gero, proiektua azken aldi batez aurkeztuko du.

**BORROKAN**
1990ko hamarkadaren erdialdean sortu zen gaur egun boskotea den Borrokan taldea. Berako noise eszena oparotik jalgi den taldeak, 2002 urtean «Borrokan» izeneko lehenbiziko lan luzea argitaratu zuen. «Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke. Oraintxe!» bigarren diskoa, 2007 urteko irailean kaleratu zuten. Oraingoan «Zuak» izenaduen lanarekin itzultzen dira. Brah Brah Kolektiboaren deiari erantzunez, ATABAL-eko oholtza gainean, disko berria aurkeztuko dute.

**465** Iparraldeko talderik hoberenetarikoa da, baina baita gutxi ezaguturikoa ere. Taldearen izenak atxiloturik dauden euskal preso politikoen kopurua adierazten du. Etengabe aldatzen da ondorioz. Beren musikarekin ere berdina gertatzen da, post-rock goxo eta lasaietik noise goraldi eroetarainoko bilakaerak baititu.



*BORROKAN @Unai I. Yarritu*

ADHÉRENT GRATUIT
KIDEENTZAT
URRIRIK

bakarra 8€ unique /// gratuit (adh – kide) urririk // 4 Egun PASS 4 Jours 20€

## VENDREDI 30 JANVIER 21:00 URTARRILAK 30 OSTIRALA

# FOREVER PAVOT +JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK

**TRIBUS #2 : LA SOUCHE ROCK x THE DRONE**

ROCK PSYKÉ





**FOREVER PAVOT**
Depuis ses débuts, Forever Pavot vogue entre deux mondes traversés par des sonorités fantasmagoriques. D'un côté celui de la pop sixties (sunshine pop, pop baroque) et de l'autre celui des maîtres de la musique de film (Ennio Morricone et la library music italienne, Alain Goraguer, Jean-Claude Vannier). Après trois 45 tours, son premier LP est sorti chez Born Bad Records.

**JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK**
Joseba Irazoki est sûrement l'un des musiciens les plus étonnants de la scène d'Euskal Herri. L'initiative Joseba Irazoki eta lagunak («et les amis») a démarré de la maison culturelle de Lugaritz (Donosti, St Sébastien) qui lui proposa de jouer en concert avec d'autres musiciens. A cette période, l'artiste travaillait en one man band, mais le concert fut un succès et il décida dès lors de sortir un CD en groupe. Le fruit de sa volonté: un album dense et magnétique, avec plusieurs parties instrumentales teintées de divers socles rythmiques gardant une touche de lyrisme.

**FOREVER PAVOT**
Taldearen sortzetik, hastapenetik, bi munduren artean dabil Forever Pavot taldea. Alde batetik, 60ko hamarkadako pop musika (sunshine pop, pop barrokoa), eta, bestalde, film musikaren maisuena (Ennio Morricone eta Italiako library music-a, Alain Goraguer, Jean-Claude Vannier). Soinu harrigarriak sortzen ditu taldeak.
Hiru disko laburren ondotik, Born Bad Records-en zigilupean beren lehen LP-a argitaratuko dute.

**JOSEBA IRAZOKI ETA LAGUNAK**
Euskal Herriko musika eszenako musikaririk harrigarrienetarikoa da Joseba Irazoki. Joseba Irazoki eta lagunak ekimena Lugaritz Kultur Etxean (Donostia) hasi zen, hangoek Josebari beste musikari batzuekin kontzertua eskaintzea proposatu ziotelarik. Garai hartan, bakarka ari zen artista. Kontzertua, baina, arrakastatsua izan zen. Orduan, taldean disko bat kaleratzea erabaki zuen. Bere gogo eta nahiaren emaitza: disko trinko eta erakargarria, hainbat zati instrumentalekin, mota askotako erritmoekin eta betiere lirismo ukituarekin.





ADHÉRENT GRATUIT
KIDEENTZAT
URRIRIK

*FOREVER PAVOT @Alex Giraud // JOSEBA IRAZOKI @Juan G. Andrès*

bakarra 8€ unique /// gratuit (adh – kide) urririk // 4 Egun PASS 4 Jours 20€

## SAMEDI 31 JANVIER 21:00 URTARRILAK 31 LARUNBATA

# DUB GREETINGS

## WORD SOUND & POWER MEETS EQUAL BROTHERS

**TRIBUS #2 : EQUAL BROTHERS**

DUB SOUND SYSTEM






A chaque session, Equal Brothers invite collectifs ou artistes de la scène DUB européenne.
Pour cette nouvelle session Dub Greetings, nous vous proposons de partager de bonnes vibrations avec Robert Tribulation et son MC Jimmy Ranks de WORD SOUND & POWER.
C'est au sein du Tribulation Sound System dans les années 70, puis du Word Sound & Power dans les années 90, que ces vétérans ont su évoluer, rester à la pointe du dub actuel et conserver une authenticité rare.



En session ou en studio via leurs innombrables productions vinyl ou dubplate, WSP offre une expérience musicale unique et une immersion dans ce que la culture sound system dub compte de meilleur.
Une soirée dans la joie et la bonne humeur, au son de notre sono artisanale made in EH.

EQUAL BROTHERS Full System: Heavy Bass Guaranteed!!!

Saio bakoitzean, Europako DUB eszenako artista eta kolektiboak gonbidatzen ditu Equal Brothers-ek. Dub Greetings saio berri horretan, Robert Tribulation-ekin eta WORD SOUND & POWER-eko Jimmy Ranks bere MC-arekin, soinu eta bibrazio goxoak partekatzeko aukera eskaintzen dizuegu.
1970eko hamarkadan, Tribulation Sound System-en baitan, eta, ondotik, 1990eko hamarkadan, Word Sound & Power taldearekin aritu ziren beterano hauek. Aitzina joatea erdietsi dute, gaurko dub musikaren gailurrean mantentzea lortu dute eta aparteko egiazkotasuna gorde dute.
Binilo edo dubplate ekoizpen ugarien artean, zuzeneko saioan edo estudioan, WSP-k musika esperientzia bakarra eskaintzen du eta dub sound system kulturak eman dezakeenaren onenean murgiltzera gonbidatzen du.
Giro on eta alaieko gaualdia hain segur, gure eskuz eraiki «made in EH» soinu ekipoaren laguntzarekin.



EQUAL BROTHERS Full System: Heavy Bass Guaranteed!!!



ADHÉRENT GRATUIT
KIDEENTZAT
URRIRIK

*EQUAL BROTHERS @David Gallard // WORD SOUND & POWER @Tsoham*

19€ / 16€ (adh-kide) en loc-aurretik // 22€ / 19€ (adh-kide) sur place-bertan

## JEUDI 05 FEVRIER 20:30 OTSAILAK 05 OSTEGUNA

# MIOSSEC + MAIALEN

CHANSON ROCK



**MIOSSEC**
Inutile de lire dans les étoiles ou dans le marc de café, Miossec signe avec «Ici-bas, Ici Même» son meilleur disque à ce jour.
Depuis 1995 et son album Boire qui avait frappé les esprits par ses textes crus, désabusés et portés par une simple paire de guitares, le bonhomme Miossec continue d'écrire l'humain avec une force et une ferveur saisissantes.
Ce neuvième album est un formidable disque de grandes chansons, composé «comme un couillon avec la guitare et trois fois rien au clavier».
Un disque modeste et génial comme l'homme qu'il est resté et dans lequel l'honnêteté, un sentiment de luminosité, de calme et de tranquillité transpire à chaque mot.
Et dans ce tour de chant à la fois intime et généreux, c'est avec classe que Miossec se dévoilera dans grand moment de sincérité et de communion avec un public fidèle.

**MAIALEN**
Maialen parcourt les scènes du Pays Basque depuis quelques années déjà et s'est construit une solide réputation. En 2004, elle sort son premier album «Nere Mundua» qui séduit le public et enchaîne les concerts avec son propre répertoire. Depuis la sortie de son dernier album «Askatasunen ibaia» en 2007, la jeune artiste s'est également investie dans plusieurs projets collectifs.
Depuis janvier 2013, Maialen s'est entourée d'une nouvelle équipe de musiciens: Pat Tetevuide, Iban Larreboure, Txus Aranburu et Raphaël Ferreira. Résolument plus rock-blues, Maialen trouve dans cette voie un souffle nouveau.






**MIOSSEC**
Ez ezazue izarrei so egin edo kafe hondarkinean begira. Argi da. «Ici-bas, Ici-même» diskoarekin, Miossec artistak bere gaur arteko diskorik hoberena eskaintzen digu.
«Boire» lehen diskoa kaleratu zuelarik, bi gitarra sinpleek lagundurik, diskoko hitz gordin eta etsituek jendea harritu zuten. 1995 urteaz geroztik, gizakia indar eta kartsutasun harrigarriarekin deskribatzen segitzen du Miossec jaunak.
«Ici-Bas, Ici Même» bederatzigarren diskoa du. Kantu handiz osatua da diskoa, «gitarrarekin eta teklatuan bizpahiru gauzatxorekin, zozolin batek bezala» konposatua.
Disko xume eta bikaina da, gizonaren antzera. Hitz bakoitzari zintzotasuna, distira, lasaitasuna eta baretasuna dario.
Maila handiko kantaldi intimo eta emankorrean, publiko fidelarekin zintzotasun eta elkartze momentu handi batean, bere barrukoa eskaintzera dator Miossec.

**MAIALEN** Bada urte zenbait, jadanik, Euskal Herrian gaindi kontzertuz-kontzertu dabilela Maialen. Izen ospetsua da orain, zinez. 2004 urtean, «Nere Mundua» lehen diskoa kaleratu zuen. Publikoaren estima bereganatu zuen orduan. Bere kantuekin kontzertuak bata bestearen atzetik ematen hasi zen. 2007an «Askatasunen ibaia» azken diskoa kaleratu zuenetik, proiektu kolektibo anitzetan ere aritu da artista gaztea.



2013ko urtarrilaz geroztik, musikari talde berri bat bildu du Maialenek: Pat Tetevuide, Iban Larreboure, Txus Aranburu eta Raphaël Ferreira. Rock-blues estilora jauzi egin du argiki, eta bide horretan hats berri bat atzeman du Maialenek.

*MIOSSEC @Alban Grosdidier @Christophe Acker*

7€ en loc – aurretik // 10€ sur place – bertan /// gratuit (adh – kide) urririk

## VENDREDI 27 FÉVRIER 21:00 OTSAILAK 27 OSTIRALA

# LE MUTANT
# + MELLANOISESCAPE
# + IMPARTO

Soirée **EKLEKTIKA** Gaua

ROCK
NOISE
PUNK

PORTAIL CULTUREL PAYS BASQUE | AGENDA | ACTUS | ÉVÉNEMENTS | TOUT CE QUI EST À VOIR (OU À ÉVITER)
www.eklektika.fr



**LE MUTANT**
Après 3 EPs auto-produits Le Mutant sort son premier véritable album «Fromagique». Adepte du surf-punk décalé, le trio basco-californien passe à la vitesse supérieure avec ce nouvel enregistrement. Le Mutant sait en effet bien s'entourer sur cet album tout en gardant l'esprit DIY qui lui est cher. Les thèmes abordés sont variés, toujours légers, et souvent absurdes.



**MELLANOISESCAPE**
Depuis ses collaborations multiples aux côtés des grands noms de la scène pop-rock française, Miossec, Dominique A..., Olivier Mellano est devenu un guitariste incontournable dans le monde des musiques actuelles. Le temps d'une échappée solo, il devient MellaNoisEscape. L'intention de départ est brute et proche de Shellac. Mais en amoureux de Blonde Redhead, référence assumée, Mellano tend aussi à viser ce point rare où noise et pop se rencontrent. Il retrouve ainsi en live l'énergie brute, les torrents électriques et les cascades soniques.

**IMPARTO**
La musique de Imparto est une errance. Un contexte dans lequel on semblerait évoluer. Une batterie qui indique la marche à suivre. Une basse qui se réserve le droit d'ajouter des éléments de compréhension. Minérale. Et des voix. Celles qu'on entend mais dont on sait que l'on n'en saisira rien. La musique d'Imparto joue le jeu de l'errance. Pour l'instant.



**LE MUTANT**
Auto-ekoizturiko 3 disko laburren ondotik, «Fromagique» izeneko bere lehen egiazko diskoa kaleratzen du Le Mutant taldeak. Ezohiko surf-punk musikaren zalea da euskal-kaliforniar hirukotea, eta grabaketa berri horrekin urrats kalitatibo bat ematen du. Izan ere, disko horretarako laguntza eta pertsona egokiak bilatu ditu Le Mutant taldeak, betiere, maite duen DIY izpirituari atxikiz. Hitzetan aipaturiko gaiak anitzak dira, arinak beti, eta absurdoak askotan.

**MELLANOISESCAPE**
Frantziako pop-rock eszenako izen handienekin, Miossec, Dominique A..., kolaborazio lan anitz egin eta gero, gaurko musiken munduan gitarrista bazterrezina bilakatu da Olivier Mellano. Bakarkako ihesaldi denboretan, MellaNoisEscape bilakatzen da. Hasierako xedea gordina izatea da eta Shellac taldearengandik hurbila. Baina, Blonde Redhead-en maitale, erreferentzia asumitua, noise eta pop musikak kausitzen diren bidegurutze horretara bideratzen da Mellano. Hartara, zuzenean, indar gordina, uhar elektronikoak eta soinu ur-jauziak bateratzen dira.

**IMPARTO**
Imparto taldearen musika noraezean dabil. Segur aski. Testuinguru jakin batean gaudela dirudi. Jarraitu beharreko martxa erakusten duen bateria bat. Ulermen elementuak gehitzeko eskubidea hartzen duen baxu bat. Bizirik gabea. Eta ahotsak. Entzuten ditugun horietarik, baina deus adituko ez dugula dakigun horietarik ere. Impartoren musika noraezean dabil. Oraingoz.

*MELLANOISESCAPE @T. Laporte // IMPARTO @L'Atelier d'Hervé*

ADHÉRENT GRATUIT
KIDEENTZAT
URRIRIK

12€ / 9€ (adh-kide) en loc-aurretik // 15€ / 12€ (adh-kide) sur place-bertan

## VENDREDI 06 MARS 21:00 MARTXOAK 06 OSTIRALA

# LOFOFORA + LOTSAGABE

ROCK METAL



**LOFOFORA**
Pour fêter les 10 ans d'existence de l'Atabal, on accueille avec plaisir un des groupes qui a le plus marqué l'histoire de la salle au travers des lives ou de résidences.
Car les années passent mais Lofofora reste incontournable, impose le respect et demeure un des leaders de la scène punk/métal hexagonale.
Ils viennent d'ailleurs de finir l'enregistrement de leur 8ème album studio «L'épreuve du contraire».
Avec ce nouvel opus, les Lofo ont mis tout le monde d'accord: ils sont encore là et n'ont pas pris une ride!
Véritable phoenix de la rage, Lofofora avance à grand coup de stoner, de hardcore, de textes affûtés et de prestations live aussi abrasives qu'incandescentes.




**LOFOFORA**
Atabal existitzen dela 10 urte badirela ospatzeko, bere egonaldi eta zuzenekoekin aretoko historia gehien markatu duen taldeetariko bat hartuko dugu, plazer handiarekin.
Izan ere, urteak pasa eta Lofofora-k talde saihestezina izaten segitzen du, beti. Errespetua aspaldi irabazia du taldeak eta Frantziako punk/metal eszenako ikur nagusia da gaur egun ere.
«L'épreuve du contraire» estudioko zortzigarren lanaren grabaketa bukatu berri dute, gainera.
Disko berri horrekin, Lofo-k denen ados jartzea lortu du: hor gainean jarraitzen dute eta ez dira batere zahartu!
Errabiaren mezulari nekaezina, Lofofora taldeak stoner, hardcore, hitz zorrotz eta zuzeneko urragarri eta bero-beroekin aurrera darrai.

**LOTSAGABE**
Ce groupe basque de métal alternatif, composé de 4 membres, vient d'enregistrer son premier EP.
Dans ce projet, le groupe a choisi d'allier rythmes lourds, lents et passages plus violents avec des textes inspirés par des questions actuelles, telles que la science, l'écologie... entre autres.
Le quatuor veut faire réfléchir et transmettre, à travers ses concerts, son énergie. Alors rendez-vous en live!!!

**LOTSAGABE**
Euskal rock-metal alternatiboa jotzen du Lotsagabe taldeak. Laukoteak bere lehen EP-a grabatu berri du. Lan horretan, erritmo motel, bizi eta gogorrak batzen ditu taldeak. Gaur egungo gaiak aipatzen dituzten hitzen bidez, jendea gogoetarazi nahi du Lotsagabek, hala nola, zientziaren, ekologiaren eta beste gai askoren inguruan. Kontzertuen bitartez bere energia transmititu nahi du. Beraz, hitzordua zuekin zuzenean!!!



*LOFOFORA @François Verthier*

7€ en loc – aurretik // 10€ sur place – bertan /// gratuit (adh – kide) urririk



# SAMEDI 07 MARS 21:00 MARTXOAK 07 LARUNBATA

# BOTIBOL
# + BABE + NECROMANCIEN

***BOTIBOL RELEASE PARTY***
Présentée par **ATABAL** et **LA SOUCHE ROCK** Aurkezturik

POP
PSYKE

**BOTIBOL**
Botibol c'est le projet de Vincent Bestaven (Petit Fantôme, Crane Angels). Après un premier album d'obédience folk «Born From a Shore» paru en 2011, un EP «The Wild Cruise» l'année suivante, et 2 années de quasi silence radio, Botibol pour son retour, nous invite au changement. On voyage sur la côte ouest-californienne de l'indie des 90's, des vox AC 30, des basses profondes au service d'une musique tantôt rêveuse et contemplative, tantôt puissante et électrique. Release Party avec une programmation imaginée par Vincent lui-même!





**BOTIBOL**
Vincent Bestaven (Petit Fantôme, Crane Angels) musikariaren proiektua da Botibol. 2011 urtean kaleratu zuen folk musika fidelki ordezkatzen zuen «Born From a Shore» lehen diskoa. Ondoko urtean, «The Wild Cruise» disko laburra argitaratu zuen. Kasik 2 urteko isilunea pasa eta, Botibol itzuli da, eta aldaketara gonbidatzen gaitu. 1990ko hamarkadako mendebaldeko Kaliforniako indie musikan murgiltzen gara, vox AC 30 anplifikagailuekin jotzen den musikan, baxu sakonekin. Batzuetan ameslaria eta kontenplaziozkoa eta besteetan indartsua eta elektrikoa den musikaren zerbitzuko. Ekoizpena sotila eta arina da. Estreinaldi besta izango da honakoa, Vincent-ek berak hautatutako egitarauarekin!

**BABE**
De Bordeaux à Glasgow, Gerard Black s'entoure d'artistes d'horizons différents tels que Michael Marshall, Amaury Ranger (membre comme lui de Françoismaking & The Atlas Mountains) et Thomas Odgen ou encore Lauren Mayberry du groupe CHVRCHES. Son premier album Volery Flightly respire les soirs d'été, entre pop, british-folk et électro.



**BABE** Bordeletik Glasgowra, leku ezberdinetako musikariz inguratzen da Gerard Black, hala nola Michael Marshall, Amaury Ranger (bera bezala, François & The Atlas Mountains taldeko kidea) eta Thomas Odgen edo CHVRCHES taldeko Lauren Mayberry besteak beste. Pop, british-folk eta elektro musiken artean, « Volery Flightly » bere lehen diskoak udako gauen usaina du.



**NECROMANCIEN** ***(ambient / sludge)***
Derrière ce pseudonyme se cache Pierre Loustaunau, récemment installé à Bayonne et aperçu dans le coin lors de ses incursions avec Petit Fantôme. Nouveau Set surprise en exclusivité pour l'occase, mur du son THX, synthé et guitare en Do au service de la manipulation des trépassés.

**NECROMANCIEN** ***(ambient / sludge)***
Izengoiti horren gibelean Pierre Loustaunau gordetzen da. Baionara bizitzera etorri da berriki, eta hemen gaindi ikusi ahal izan dugu, Petit Fantôme-ekin jo izan duelarik. Sorpresaz beteriko kontzertu horren karietara, esklusiban, kantu zerrenda berriarekin etorriko da. THX bozgoragailu harresiarekin eta Do-n afinaturiko gitarra eta teklatuarekin, hildakoen manipulazioaren zerbitzuko soinua sortzen du.

**HAVEC** Exposition temporaire
http://havec.tumblr.com/
Rambo choucroute, Humour fou, tristesse infinie, slogans absurdes, un million de trait par cm2, les dessins de sylvain parlent pour lui. Havec réalise les pochettes de Botibol depuis le début.

**HAVEC**-en aldi bateko erakusketa http://havec.tumblr.com/
Rambo-ren ile orrazkera, umore eroa, amaigabeko tristura, zentzugabeko leloak, zm²-an milioi bat marra, Sylvain-en marrazkiak oso adierazgarriak dira. Taldearen hastapenetik Botibol-en disko azalak sortzen ditu Havec-ek.

***+ WARM UP dès 20h & AFTER***
**DJ SET MOÏ MOÏ & LA SOUCHE ROCK**

***+ WARM UP 8etatik goiti & AFTER***
**DJ SET MOÏ MOÏ & LA SOUCHE ROCK**

ADHÉRENT GRATUIT
KIDEENTZAT
URRIRIK

*BOTIBOL @Havec // BABE @Lola Pertsowsky*

bakarra 14€ unique

## VENDREDI 13 MARS 21:00 MARTXOAK 13 OSTIRALA

# BERRI TXARRAK

Présenté par **PANDA MUSIC MANAGEMENT** Aurkezturik

ROCK



Guztira 20 kantuz osaturiko hiru disko. Horra, azkenean, hainbeste igurikatu BERRI TXARRAK taldearen proiektua.

«HARIA» biraren ondotik, sorkuntza prozesu berri horretan murgildu dira taldeko musikariak, «20 urte, 20 kantu» lemarekin gogoan. Ekoizpena zatitzea erabaki du taldeak: hiru ekoizle ezberdin, rocka sentitzeko hiru manera ezberdin, hiru ikuspegi.

Honela, 2014 urtean zehar hiru grabaketa egin dituzte, atsegin dituzten hiru ekoizle ezberdinekin: Ross Robinson («Haria» diskoko ekoizlea), Ricky Falkner eta Bill Stevenson (punk-rockaren historian eragile garrantzitsua).

Atabaleko oholtza zapalduko dute beraz, eta Iparraldeko kontzertu bakarra izanen da honakoa!

Un triple disque contenant un total de 20 titres, voici le projet tant espéré par BERRI TXARRAK.

Après la tournée «HARIA», un nouveau processus créatif avale ses musiciens. La devise «20 ans 20 chansons» en tête, le groupe décide de diviser la production: trois producteurs différents, trois façons de sentir le rock, trois points de vue.

Ainsi, au cours de l'année 2014 trois enregistrements se sont faits avec autant de producteurs qui leur sont chers: Ross Robinson (producteur de «Haria»), Ricky Falkner et Bill Stevenson (acteur important de l'histoire du Punk Rock).

Ils seront sur la scène de l'Atabal pour une date unique en Iparralde!






17€ / 14€ (adh-kide) en loc-aurretik // 20€ / 17€ (adh-kide) sur place-bertan

## VENDREDI 20 MARS 21:00 MARTXOAK 20 OSTIRALA

# BI HARRIZ LAU XORI
# KASSE MADY DIABATE
# + NAPOKA IRIA

Présenté par **ATABAL** et **BIARRITZ CULTURE** Aurkezturik
Dans le cadre du festival **BI HARRIZ LAU XORI** festibalaren karietara

FOLK MANDINGUE

### KASSE MADY DIABATE




Une voix à la profondeur veloutée, vibrant d'une émotion subtile: Kasse Mady Diabate et trois musiciens de la grande tradition mandingue: Lansine Kouyate (Balafon), Badie Tounkara (Ngoni), et Ballake Sissoko (Kora) accompagnés par Vincent Segal…
Telle est l'équipe impeccable de «KIRIKE», dernier né d'une tradition perpétuée depuis sept siècles par les griots du Mali.
Kiriké, c'est aussi l'occasion de fêter les cinquante ans de carrière de Kasse Mady Diabate. Celui que Salif Keita a pu présenter comme «le plus grand chanteur du Mali» est un homme modeste, que l'insistance des musiciens a arraché à son champ et jeté sous les feux des projecteurs. Kirike, avec sa belle sérénité et sa production élégante, saura s'imposer comme le nouveau chef d'œuvre de cette royale lignée.

### KASSE MADY DIABATE

Sakontasun leuneko ahotsa, emozio sotil batean dardaraka: Kasse Mady Diabate. Mande kulturako tradiziotik datozen hiru musikari : Lansine Kouyate (Balafon), Badie Tounkara (Ngoni), eta Ballake Sissoko (Kora). Vincent Segal-ek lagundurik. Hau da «KIRIKE» osatzen duen talde bikaina. Afrikako Mali herritik, griot izeneko kontalariek azken zazpi mendeetan atxiki tradiziotik jalgi azken berrikuntza da.




Kiriké, Kasse Mady Diabate artistaren karreraren berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko aukera da baita ere. «Maliko kantari handiena» izendatu zuen Salif Keita-k. Gizon umila da Kasse Mady Diabate, eta bere musikarien temari esker lekutu da bere landetatik oholtzako argipera. Lasaitasun ederrarekin eta ekoizpen elegantearekin, Kirike, leinu handi horren goi-obra berria izango da.

### NAPOKA IRIA

Napoka Iria est le fruit de la rencontre en 2005 de Miren Narbaiza et Ander Mujika, 2 musiciens gipuzkoar réunis dans un duo où harmonies folk et fulgurance rock cohabitent depuis 2 albums et 2 Ep. Après «Lehertarazi Eraikinak» en 2008, Arnasten Ikasteko berriz voit le jour fin 2013 et envoie le groupe visiter le Japon pour la seconde fois. S'attachant davantage aux détails, les 8 morceaux de ce dernier opus invitent désormais à découvrir des paysages intimes suggérés par la personnalité des 2 entités de Napoka Iria.



### NAPOKA IRIA

Miren Narbaiza eta Ander Mujika bi musikari gipuzkoarren elkartzearekin sortu da Napoka Iria. Zenbait lan labur kaleratu eta gero, «Lehertarazi edifizioak» lehen lan luzea, Bergarako gaztetxean zuzenean grabatzen dute. Disko horren bidez kontzertu mordoxka (300 bat) eskaini dituzte Eukal Herrian, baina baita ere Japonian, Ingalaterran, Katalunian edo Polonian. 2013. urtean kaleratu duten «Arnasten ikasteko» diskoarekin haien estiloa baieztatu dute, baina aldi berean sakontze eta aldatze bat izan dela erran dezakegu. Lehen diskoan ahotsek zuten nagusitasuna. Bigarrenean, bereziki giroak zainduak izan dira. Mirenen ahots indartsu eta esanguratsua beti hor da, baina musikaren zerbitzurako. Folk idorrena rockaren elektrizitatearekin nahasten dute, mundu intimo batzuk marraztuz.

*KASSY MADY DIABATE ©Manuel Lagos // NAPOKA IRIA @Josu Torrealday*

9€/ 6€ (adh-kide) en loc-aurretik // 12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan

## SAMEDI 21 MARS 21:00 MARTXOAK 21 LARUNBATA

# ANESTESIA
# + THE RODEO IDIOT ENGINE

POST HARDCORE METAL






**ANESTESIA**
Anestesia est de retour. Le groupe phare du metal-hardcore basque revient sur le devant de la scène. On ne présente plus ce groupe mythique, qui en 26 ans d'activité a publié 9 albums studio.
9 ans après leur dernier disque, le quatuor de Zarautz (Gipuzkoa) vient de sortir «Zirkulutik Espiralera», nouvel album composé de 13 chansons. Le disque est publié par Bonberenea Ekintzak et a été enregistré à Zarautz, dans le studio de Mikel Kazalis. 1ère date de présentation en Iparralde.

**ANESTESIA**
Anestesia taldea itzuli da. Euskal Herriko metal-hardcore eszenan hain esanguratsua den taldea berriz ere bueltan da. Aurkezpen gutxi behar ditu talde mitikoak. 26 urteko ibilbidean, 9 disko kaleratu ditu. Azkeneko estudio lana atera zutenetik 9 urte dira orain, eta laukote zarauztarrak «Zirkulutik Espiralera» 13 abestiz osatutako disko berria kaleratu berri du. Bonberenea Ekintzak-ek argitaratu du diskoa, eta Zarautzen grabatu dute, Mikel Kazalis-en estudioan. Iparraldeko lehen aurkezpen kontzertua izango da hau.

**THE RODEO IDIOT ENGINE**
Après plus de 100 dates et une bonne partie des deux dernières années sur les routes de toute l'Europe pour présenter leur deuxième album «Consequences», les Basques de The Rodeo Idiot Engine se sont enfermés tout l'hiver dans les hauteurs pour composer leur 3ème album. Ils viendront présenter un avant-goût live de ce nouvel opus pour une performance toujours aussi intense et chaotique!



**THE RODEO IDIOT ENGINE**
«Consequences» diskoa aurkezteko 100 kontzertutik gora eskaini ostean, eta azken bi urteetan Europa osoko errepideak zapaltzen egon ondoren, The Rodeo Idiot Engine taldeak negua bere entsaio gelan gakoturik iragan du, hirugarren diskoa konposatzeko asmoarekin. Disko berri horren aitzin-gustu bat aurkeztuko digute, beti bezain trinkoa eta kaotikoa izango den zuzenekoan!

***# Passage de la Korrika à Biarritz après le concert!! #***

***# Kontzertuaren ondotik, korrika pasako zaigu!! #***

*THE RODEO IDIOT ENGINE ©Andy Ensslin*

9€ / 6€ (adh-kide) en loc-aurretik // 12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan

## VENDREDI 27 MARS 21:00 MARTXOAK 27 OSTIRALA

# ISAAC DELUSION
# + BADEN BADEN
# + RUN CAROLINE

**FAIR: LE TOUR**

POP
INDÉ

**ISAAC DELUSION**
Isaac Delusion offre une musique somnambule, faite de ballades oniriques, toujours ces paysages flous, grandes étendues indéfinissables et aussi le temps qui file entre nos doigts, l'envie de voir ailleurs. Le rêve leur colle à la peau, en fait. Tout comme lorsque l'on tente d'en rattraper un, celui-ci s'envole, leur musique est insaisissable. L'EP parlait d'un soleil à minuit, le deuxième, de l'aube, car la lumière ne les empêche pas de rêver éveillés.



**BADEN BADEN**
Après un premier album «Coline» paru fin 2012, et une tournée qui vit le groupe passer par les Francofolies de La Rochelle et le Printemps de Bourges, Baden Baden est de retour en 2015 avec «Mille éclairs». Dans ce nouveau disque, composé à Paris et au bord de la Manche, le leitmotiv du groupe se précise: capturer les émotions, suivre son instinct et sublimer sa singularité.

**RUN CAROLINE**
C'est en novembre 2011 que Caroline publie une annonce car il reste une place dans la colocation. Run pousse la porte, arrivé en van au début de l'été à Biarritz, et enfin décidé à se mettre au chaud pour l'hiver.
Fans d'Elliott Smith ou encore de Dinah Washington, les soirées guitare à «la coloc'» les amènent rapidement à donner des concerts sur la côte Basque et Run Caroline commence à écrire ses propres chansons: un duo indie folk, déraciné et libre.



**ISAAC DELUSION**
Isaac Delusion-ek musika somnambulua eskaintzen du, balada onirikoz osatua. Paisaia lausoak irudikatzen ditugu betiere, ezin mugatuzko eremu handiak, gure eskuen artetik ihes egiten duen denbora. Beste norabait begiratzeko gogoa pizten digu.
Azken finean, ametsa gainetik ezin kendua dute.
Amets baten atzetik korrika, bere harrapatzen saiatzen garelarik, ihes egiten digu. Ber gisan, beren musika ezin harrapatua da. Lehen disko laburrean gauerdiko eguzkia zuten aipu. Bigarrenean, egunsentia. Argiak ez baitie iratzarririk amestea eragozten.




**BADEN BADEN**
2012 urte bukaeran kaleratu «Coline» lehen diskoaren ondotik, La Rochelle-eko Francofolies eta Le Printemps de Bourges festibaletatik iragan biraren ostean, 2015 urtean, Baden Baden taldea «Mille éclairs» diskoarekin itzultzen da. Parisen eta Mantxako kanalaren bazterrean konposatu disko berri horrekin, taldearen leitmotiva zehazten dute: emozioak bildu, senari jarraitu eta berezitasuna sublimatu.





**RUN CAROLINE**
Bere apartamentua partekatzeko leku bat baduenez, 2011ko azaroan, iragarki bat plazaratzen du Caroline-ek. Run-ek atea zabaltzen du. Uda hastapenean Biarritzera heldu berria da, eta negua beroan pasatzea erabaki du, azkenean. Elliott Smith edota Dinah Washington-en zale handiak dira biak, eta orduan apartamendukideen gaualdiak gitarraren inguruan iragaten dira usu. Laster, euskal kostaldean kontzertuak eskaintzen hasten dira eta Run Caroline gisa lehen kantuak idazten dituzte : indie folk bikotea da, deserrotua eta askea.

*ISAAC DELUSION ©Antoine Robin*

9€ / 6€ (adh-kide) en loc-aurretik // 12€ / 9€ (adh-kide) sur place-bertan

## JEUDI 02 AVRIL 21:00 APIRILAK 02 OSTEGUNA

# HINT + A.C.T + JOUJOU

NOISE ROCK

**HINT**
Hint est une ombre qui plane en permanence sur la scène musicale indé hexagonale. Un groupe dont tout le monde a forcément entendu parler au moins une fois. Et pour cause, Hint est rare et tout simplement culte. Le trio a dévoilé une œuvre à la fois avant-gardiste et indispensable. Mélange de rock alternatif noisy et de musique expérimentale, il secoua la scène hexagonale qui ne s'en remettra pas. 15 ans plus tard, Hint est une source d'inspiration pour nombre d'entités musicales, en France et ailleurs. Après huit ans d'absence, le groupe entame au printemps 2009 une tournée «collision» avec EZ3kiel, réédite ses 3 albums et reprend alors la route pour une série de concerts et une 1ère inratable à l'Atabal.



**HINT**
Frantziako musika eszena independentearen baitan, etengabe senti daitekeen itzal baten antzekoa da Hint taldea. Denek entzun dugu taldeaz aipuren bat, behin bederen. Eta arrazoiarekin! Hint arraroa baita. Eta kultoa, sinpleki. Obra aitzindaria bezain ezinbestekoa sortu du hirukoteak, noise ukituko rock alternatiboa, musika esperimentalarekin nahasirik. Frantziako eszena azkarki inarrosi zuen. 15 urte beranduago, Frantzian zein atzerrian, beste musika talde askorentzat inspirazio iturria da Hint. Zortzi urteko isilunea eta gero, 2009ko udaberrian, EZ3kiel taldearekin «Collision» bira antolatu zuen. 3 disko berrargitaratu zituen ondoren. Errepidean barna asfaltoa zapaltzen ari da orduz geroztik, kontzertu zerrenda luze batean, ATABALeko lehen aldi hori barne. Ezin huts egina.

**A.C.T**
La recette Act par Kristian Aduriz: Ingrédients 400 g de noise, 400 g de trip-hop, 500 g d'alternative electronic, 120 g d'industrielle, 100 g de rock, 80 g de psychedelic. Préparation Démarrer l'ordinateur et tous les périphériques. Lancer le logiciel de création et d'enregistrement. Programmer des lignes de batteries. Enregistrer des lignes de guitare, de basse, de synthés, de basse jouée avec un archet et de cora électrique. Proposer différents morceaux à des artistes. Récolter les enregistrements. Découper, ajuster, copier, coller. Écouter et ré-écouter, modifier, affiner. Mixer le tout et masteriser.



**A.C.T**
Act-en errezeta, Kristian Adurizek eskainirik. Osagaiak: noise musikatik 400g, trip-hop-etik 400g, alternative elektronikotik 500g, industrialetik 120g, rock-etik 100g eta psikodelikotik 80g. Prestaketa: Ordenagailua eta periferiko guztiak piztu. Sorkuntza eta grabaketa programak ireki. Bateria erritmoak programatu. Gitarra, baxua, teklatuak, arkuarekin jo baxua eta kora elektrikoarekin jo melodiak grabatu. Sortutako kantuak artista ezberdinei eskaini. Haien ekarpenak eta grabaketak bildu. Moztu, zuzendu, kopiatu, itsatsi. Entzun eta berriz entzun, aldatu, findu. Guztia nahasi eta masterizatu.

**JOUJOU**
Chancelant entre rock'n'roll minimaliste et danse vaudou de salon, avec sa lutherie sauvage et ses poèmes apprivoisés, Joujou cherche à retrouver une danse libre, à quatre pattes comme sur un pied. A force de riffs simples, de boucles et de tambours martelés, de cris et d'incantations improvisées, ce duo réveille le primitv' dance floor qui est en nous. Mix rock punk chanson avec basse une corde et batterie.



**JOUJOU**
Rock'n'roll minimalista eta vaudou dantzaren artean zalantzan, arrabita basatiak eta inprobisatutako poemak nahasiz, dantza askea -lau oinean edo zango baten gainean- berriz atzemateko soinu ikerketa darama Joujou-k. Riff sinpleak, soinu errepikakorrak eta danborrak mailukaturik, oihuak eta inkantazioak inprobisaturik, bikote horrek gure baitan den dantzarako gogo primitiboa iratzartzen du. Rock punk chanson nahasketa eskaintzen du, soka bakarreko baxu eta bateria batekin.

*HINT ©Zoz // JOUJOU @Hélène Bozzi*

7€ en loc - aurretik // 10€ sur place - bertan /// gratuit (adh - kide) urririk **

# VENDREDI 10 AVRIL 21:00 APIRILAK 10 OSTIRALA

# OLD SCHOOL FUNKY FAMILY + POLYGORN

***OLD SCHOOL FUNKY FAMILY RELEASE PARTY***

ELEKTRO FUNK



**OLD SCHOOL FUNKY FAMILY**
Le Old School Funky Family (OSFF pour les intimes) vient fêter une décennie d'existence avec un nouvel album sous le bras qui élargit encore plus largement leur formule «fanfare funk taillée pour les grosses scènes».
Il leur suffit de deux paires de saxs, d'un soubassophone, d'un accordéon et d'une batterie pour asséner, aussi bien en mode «street» qu'en mode «stage» un groove et des sonorités bien trop en place pour qu'on les prenne pour des bouffons qui font pouêt pouêt à la queueleuleu.
Après plus d'une centaine de concert, ce sera donc une belle machine bien roulée qui va venir célébrer et présenter un nouvel opus impeccablement dosé, l'inverse exact de l'expression «du miel dans les pieds et des fourmis dans les oreilles».

**POLYGORN**
Certains albums semblent ne pouvoir être qu'éponymes, c'est le cas du premier album de Polygorn qui, au-delà des chapelles et des niches, réunit joyeusement microcosmes électroniques et pérégrinations soniques au sein d'un quatuor qui psychédélise les pulsations kraut, ajoute des couches de distorsion aux mélodies afro, en réussissant au final un crossover à la fois exigeant et décomplexé.




Issus du collectif Moï Moï (à qui on doit entre autres la sortie récente d'Odei et le réjouissant festival Baleapop), Panda Valium, Pollux, Elorn et M.# entremêlent vicieusement machinisme électro et pulsations instrumentales dans une sorte de rituel cosmique en mutation perpétuelle, et signent là une des belles surprises de cette fin d'année.

**OLD SCHOOL FUNKY FAMILY**
Old School Funky Family taldea (OSFF lagun artean) sortu zela hamar urte bete berri dira. Horren kari, «eszena handietarako egokia den funk txarangaren» formula gainditzen duen disko berri bat kaleratu dute.
Saxofoi bikote bikoitza, sousafoia, akordeoia eta bateria batekin nahikoa dute, kalean zein oholtza gainean, erritmo eta soinu bikaina sakatzeko. Sekulako maila dute, oso altua, «puet puet tzunba tzunba» jotzen duten zanpantzarrak direla uste izateko.
Ehun kontzertutik gora eskaini ditu taldeak. Eskarmentu handiko taldea etorriko da beraz, disko berri horren aurkeztera eta ospatzera. Ongi neurtutako diskoa sortu dute, «oinetan eztia, belarrietan xinaurriak» esaeraren alderantzizkoa hain justu.

**POLYGORN**
Disko batzuk egilearen izen berekoak edo eponimoak baizik ez daitezke izan. Polygorn taldearen lehen diskoarekin horrela gertatzen da. Segurtamenen eremuetatik haratago, mikrokosmo elektronikoak eta soinuen joan-etorri alaiak batzen ditu taldeak.



Laukoteak kraut estiloko pultsazioak eta psikodelia biltzen ditu, afro estiloko melodiei distortsio geruzak gehitzen dizkie, crossover zorrotza eskaintzen du, konplexuetarik libratua.
Moï Moï kolektibotik datoz (Odei-en diskoa kaleratu berri duen eta Baleapop festibala antolatzen duen kolektiboa), Panda Valium, Pollux, Elorn eta M.# taldekideak. Makina elektronikoak eta pultsazio instrumentalak biziotsu nahasten dituzte, etengabe aldatzen ari den erritual kosmiko baten gisan. 2014 urte bukaerako sorpresa ederren artean kokatzen da beren diskoa.

